



V URTEA - N.º 52

Suplemento a la Hoja  
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Irailla (9) 1958

## Barrero itxasoa

Itxasoko problema guztiak, importantzia aundia dauke euskaldunontzat. Asko dira euskal familiak, euren semeak itxasoan zelan edo alan bear egiten daukezanak.

Orregaitik, poztu egiten gara, gure itxasgizonen alde zerbait egiten dala jakiten dogunean.

Oraintsu agiri da Madrille-n Kreditu Navaleko legea. Lege onen bitartez, Espainia-ko gobernuak lagundu gura deute gure portuetako gizoneri, arraintzuko gorabeerak gero ta gogorragoak dira-ta.

Mundua beti doa aurrera, eta arraintzuko gauzak - bere aspaldion asko aldatu dira. Orain es da ikusten gure portuetan ikatzezko embarkaziñorik: danak dira gasoillezkoak. Oraingo untiak egunean baiñio egunean aundiagoak dira: gure portuak laster txikiak izango dira.

Euskal ertzeko itxasoak pobretuten asi dira. Gure untiak asagora urten bear dabe, arraintzen ugaria egitekotan. Neguan ez dago zeregiñik gure portuetan, eta zerbait irabazteko eta zorrak pagetako, erbestera joan bear.

Orregaitik, arraintzaleen erlegiño bizi-modua be aspaldion asko aldatu da, asko gogortu da. Orain arraintzaleak gitxiago dagoz errian; domeka geiago galtzen dabe itxasoan; peligru geiago dauke erlegiñoagaz aztu eta materialismoan jausteko.

Ez gintzakez benetako kristiñauak izango, peligru orren aurrean besoak batuta bagengoz. Eurak eleizara etorri ezin badira, eleizgizonak eurakana joan daitezala.

Orrexen gaiñean egon dira berba egiten, ain zuzen be, ille onetako lenengo astean, Vigo-n batu direan Espainia guztiko seminaristak. Antxe egon dira, itxasgizonen erlegiño problemak estudietan, biar egunean eurakaz itxasora joateko eta kristiñau bizimoduan lagunduteko.

Aita Santuak biotz barru barruan daroaz itxasgizonak. Oraintsu argitaratu dau «Exsul Familia» Konstituziño Apostolikoa. Konstituziño orren bitartez, jagon gura ditu Aita Santuak itxasoan dabilzan gizonak.

Aita Santuari arazo onetan lagunduteko, langille asko bear dira. Lenengo itxasgizonak eurak: sortu daitezala embarkaziño bako-txean benetako apostoluak, erlegiñoaren ardurea lagunen artean sartzen dakienak. Gero itxas familiak: euren laguntza barik gitxi egin leiteke zeregin onetan.

Eta -azkenik itxas eleizgizonak: sazerdote artezak, transatlantikoetan benetako kape-llanak izateko; mezadun zintzoak, karga, untzietan joateko; abade ta fraille santuak, arraintzaleakaz itxasoan gau ta egun ibil-teko.



# Solo bearretarako makiñak

*Arantzazu-ko GOIZ ARGI-lik  
Bizkaieratua.*

Sari entzun oi da gure baserrietan makiñak sartu bear dirala, ta onezkero ez litzakela idirik buztartu bear gure soloetan lan egiteko.

Kastilla aldean mandoak legez, gure lurretan idiak naitanaiezkoak izan dira, atxakiarik asko euren kontra euki arren.

Idiak, orraitíño, lanerako gauza ez diranean, aragítara valio izaten dabe. Mandoak ezetarako bez, eta, gañera, arin zaartzan dira, ta arin atara bear euren valioa, jabearentzat kaltegarri izango ez badira.

Mantenietako bere, idiak merkeago izaten dira. Bear gitxi egiten dabenean, naikoa izaten dabe bedar utsagaz. Mandoari pentsu fiñak eta karuak emon bear.

Baserritarrak maite izaten ditu bere lanerako lagun izaten dituan idiak. Baiña kontuan artu bear leukez kortan alperrierian pasetan dituen egunak.

Nik ez dot emen ezer esango mendian edo gurdiagaz karga astunak igaroten idieri bear eragiten deuten baserritarragaitik. Idiak soloetako lanetarako erabilten dituezaneri bai esan gura deutset zerbait. Zeinbat valio deutsu idiak? Zeinbat irabazi emoten deutsu? Erösi zenduanean kosta jatsuna zelan pagau deutsu? Lanerako gauza ez danean aragitarako zeinbat valioko deutsu?

Baiña batek baiño geiagok baliteke esatea, baserrietan, geienetan beintzat, idi barik golde lanetarako ta onen antzekoetarako ezin leitekela pasau. Ori olan da. Orregaitik esan dogu asieran idiak, euren atxaki ta guzti, nai ta naiezkoak direaia baserrian.

Baiña gaur gure baserrietako kortetan irabazi geigo atarako leukeela uste dogu beiak eta zekorrak, eznetarako ta aragitarako, lanerako idiak baiño.

Eta idien ordeze «traktorak» ipiñi. Ez ikaratu, adizkidel Solo bakotxerako egoki

diran tamañukoak, konveni diran taiukoak, tankera guztietakoak dagoz saigei.

Eta ez esan zelan sartuko dozuezan traktorak gizon bat zutunik ezin ibilli al izateko aldatzetan. Aldatz orreek, nire eritxian, ez dira labrantzarako. Bedartzarako, eta bide batez, arboladi (naiz sagardi, naiz kereixadi) ipiñi, ta ganaduak botetako, edo, orain ainbeste ikusten danez, piñua sartzeko, obato izango dira.

Badakit baserri baterako ona izango dan traktora billatzea gatx izango dala. Badakit arrisku andiko arazoa dala, gañerako eza-guera andi barik, orretariko traste bat etxera ekartea. Geienetan buztin lurak izaten dira gure soloak, eta indar asko bear eurak landuteko. Orregaitik, are asko dauken lurretan bere bizikoak atera diran traktorak, gure lurretan txarrak urten dabe. Gure ustez auxe izango litzake gauzarik egokiena: Auzodi batek danen artean traktor bat erosi, golde lanak eta beste gogortxuenak egiteko, eta eznetarako ez diran beiaikin lanik samur eta errazenak egin. Bei oneek izango lirake txalak emoteko, ta golde lanik egin barik, beste baserriko beartxuak egiteko.

Beste idea batzuk. Baserrian norbait diruduna badago, beronek zegaitik erosi ez traktora, ta auzoeri emon alkilerrean? Eta, modurik izan ezketiño, Hermandadeak zegaitik erosi ez, eta aikilerrean emon? Espaiñiako leku askotan oneiantxe egiten da.

Dana dala onetariko makiña bat asko kostetan da, eta erosteko kontu andia euki bear da. Ez litzake txarto egiña izango gure Provintzietan nekazaleeri jaguntzeko Diputaziñoak dauken dirutik, zati bat makiñeak idien ordeze ze ventaja dauken ikusteko izentatzea.

Gure baserriak aurrera joatea gura badogu, idien ordeze makiñea zelan sartu leitekean estudiantu bear da.

*Jose Mari BUSKA*



# Gazte bardingo baten "diarioa"

Gazteak euren lenengo gaztetzaroan bu-ruausterik asko emoten deutse persona eda-dekoeri. Gure artean eta mundu guztian. Geienetan zaarrak ez dituez ulertzen gaz-teen problemak, eta makiña bat okerreko pausu emoten dira edukaziño on baterako bideetan. "Nostro Figlio" deritxon Italiako errevista batek atara ditu amalau urtebeteko mutil bardingo baten "Diario"-ko pagiña batzuk, mutillaren izena agertu barik, eta, itxuraz, mutillak ez dakiala. Ona emen "diarioa"ren zati bat edo beste, gure eritxiz interesik andikoenak. "Nostro Figlio"-k di-ño ze, emen, diario onen zatietan, ikusten direala edukaziño arazoetan egiten doguzan errakuntzarik andientxuenak.

Gure asmoa emen ez da izango pedagogia lanetan iñori leziñoak emotea, ezpabere ze-lako errakuntzak egiten direan agertzea bai-ño.

1-XI-55

Gaur ikusi dot Mirentxu. Amak fal-tarik asko topetan deutsoz. Baiña neska politagorik nik ez dot ikusi. Simpatia an-dia artu deusat. Niretzat ez dauko fal-tatxu bat baiño: edonorentzat simpatika izateko afana. Eta nik neuretzat bakarrik izatea gura. Ganera, ez dot gura pentsa daian beragaitik interesik daukodanik. Datorrela bera neugana... gura badeu. Gauza bat dago emen zegaitik dan nik ez dakidana: zegaitik gurean ainbeste za-rata, Mirentxugaz bi bidar ikusi nabela ta beste barik? Egingo neuke nire arre-ba, mamala zarra, ori izan dala tempes-tadea altsa dauana.

\* \* \*

24-XII-55

Geroago ta gogaituago nago zaarren berbeta moduagaz. Iñoizkoren baten zer-

bait ondo esaten badabe, ta neure ba-rruan poztu ta entsusiasmetan banaiz, esaten deuste: Ik ez dakizak oneek gauz-ok; geroago jakingo dozak.

\* \* \*

15-II-56

Aitzó aitatzuk berba egin eustan ema-kumeen ganean begirune andiagaz. Zela-ko peligruak eta problemak datozan or-tik. Bera ta amatxu ezkongaiak zireane-ko pasadizuak eta abar. Korage andia as-mau neutsan aitari onelako gauzak kon-tetan eustazanean. Baiña urtebete atzera dabil. Orain dana dakit, berak esan ordu-ko.

\* \* \*

16-II-56

Gure ama beti dabil nire ta neure la-gunen arteko diferentziak ataraten. Areek bei mutillak, areek!, ez ni! Baiña ama ez da kontuan jausten areek ez daukela problemarik, nik daukodazan moduan.

\* \* \*

20-II-56

Batzutan gizona izateko guraria senti-etan dot. Gauza serioen ganean berba egi-teko, gauza asko irakurteko, dana jakite-ko. Gero, bat batean, ume izan gurea, umeen holgeta gurea. Neska bat pasetan ikusten badot, barriro gizon duten naiz, orduerdi baterako bedere, gero, oster-a bere, umekeri zalc.

\* \* \*

27-III-56

Badakit orain mundua bomba atomi-kaz beteriko baso bat dala. Edonor yatort esaten zelako peligruak dagozan, zelako tentaziñoak. Eta kontuz ibili naiteala,



*jausi ez naitean. Gauza bat dago esatzen ez deustena: eurak zelak konpondu zirean ez jausteko.*

\* \* \*

12-V-56

*Gure aitarentzat injustizia berari ofizian egiten deustena. Nik estaten ba deustat, nire ustez, injustiziak zeintzuk direan; —Idea erreboluzionariak daukuzak, oraingo gazteen antzera. Ez daukok esperientziarik bat bere— erantzuten deust. Baiña nik diñot, eze, zelako esperientzia da, ba, eurena, baztarretan aibeste miseria ez ikusteko ta erremediorik ez topetako?—Orrek ez yaukok erremediorik, —esan, eta trankil geratzen dira.*

\* \* \*

10-IX-56

*Don Pedrok orain iru urte lez irakasten deusko Katezismoa. Garbitasuna au dala, pekatu mortalá ori dala. Jainkoaren atributoak onelan direala, ta orrelan ez direala. Berak diñoana, guretzat dana ziur bailitzan, esaten deusku. Eta ez da kontuan jausten gutariko erdiak zelako peillekadak, zelako buruausteak eta burrukadak darabilguzan gure animak, pekatuan zikindu barik, Jainkoaren Grazian eta Sinistean gordetako. Beste erdiak galduta dagoz. Zer valio deutse aibeste definiziño? Ezetarako bez. Jakitea ez da gaita. Jakitea ta bizitzea alkarregaz ondo konpondutea, aori da gatxa!*

*kide taiuan egon bear da. Gurasotasuna ona izango da, euren gogoa irabazteko alan bear bada, bestela ez; eurakaz gure tratamentua edukaziñozko bideetan zuzentzeko bear danean, eta atarako egoki dan neurrian, bestela ez.*

*Berba egiten deutsegunean, mutil bardingoak ez dabez aintzat artzen gure errazoiak eta berbak. Eurak, gure batruko idea ulertu ta gure intentziñoa igarri, orixe gura izaten dabe. Gauza batek emoten deutse enfagu andia: euren konfiantzea irabaztearren, hipokresiaz eta falsokeriaz jokatutea.*

*Oindo badago zerbait sendoro, gorroto dabena. Eurakaz zer egin edo ez egin ez dakigula ibiltea. Eurakaz bildur gareala adietan emotea. Eurak gizon egin gura doguzanean, geu ume izatea.*

*Benetan buruauste gatxa guraso batentzat amalau urteko mutilla. Baleiteke noiz edo noiz bera gizona izan eta umetzat artzea. Baleiteke bere aurrean daukozan drama naiz andiak naiz txikiak guk ez ulertzea. Ez deutsegu lagunduko persona zaarren mundura etorten?*

*Aingeru*

---

---

## ABERASTU ZURE EUSKEREA

*Ez esan:*

*Esan:*

Gosea daukat

Gose naiz

Egarria daukat

Egarri naiz

Bero egiten dau

Bero dago

Otz egiten dau

Otz dago

Edurra egiten dau

Edurra da

Euria egiten dau

Euria da

.....  
Gazteak extremistak eta intoleranteak direala esan oi da. Baiña geu ez ete gara armazoi ustelduak eureri eusteko, kanal uger-tuak euren pentsamentueri pasu emoteko? Gazte bardingoen ondoan egotekotan, adiz-



# GOIZALDEAN

«Bart arratsean beranduan  
nekez etxian jo-genduan»  
.....

Enbute, Arrut eta Txaparro geure erriko iru gizon ziran: langilleak, zintzoak eta sendi-maitaleak, baña bai jan-edan zaletxuak bere.

Iruren artean, orain «orkestina» deituko geunskion aldra polit bat, orniduten eben.

Txaparrok auspo-soñua edo pillarmonika, Enbutek gitarrea eta Arrutek beste gitarra txikitxuago bat jotzen ebela, erririk-erri eta baserririk-baserri ibiltzen ziran: Nun esteguren bat, erri jai azken usaiñen bat edo zerbaiten zaratea edo durrundia susmau ezker, araxe.

Bein, irabaziak bere politak, ontxuak izan ziralako-edo OLESKO deritxon auzouneko trabenean, bear dan lez, ondotxu, apalduta gero, or, goizeko ordu biak inguruan, berbaldun eta barriketolari ba'etozan erri alderantz.

Prantzekalean sartu ziranean Enbutek esan utsan Arrut'eri:

—«Gaur, berandutxu bere ba'dok-eta, ez-tue iri andreak etxeko aterik idigiko. Eta alba'ko mesatarako berak etxetik urtetan daben artian, beintzat, kalean, zintzarrian jesarrita, egon bearko dok, beste egun askotan bezela.»

—«Ez, orixe! Aterik idigi-ez, ostera? Gaur eztok olakorik jazoko. Sakelian jakart nik dei-ots eta «aldabarik» nts-bako, egoki eta ziurrena. Itxaron pizkat eta biok ikusiko dozue.»

Eta bizi zau etxe atera cidu ziranean:

—DAN, DAN, DAN deitu eban..... baña an etzan iñor bizi, antza.

Ixillune txiki bat eta:

—DAN, DAN, DAN barriro bere, eta len baño sendo eta gogorrago, etxe guztiari dart-eragiteko eran..... Baña alperrik.

Orduan gure Arrut'ek geldiro eta polito atara eban sakeletik zidarrezko ogerleko zurri eder bat eta...

—DIN, DIN, DIN sei-zortzi aldiz kaleko losetan ots-eragin utsan...

Larregi itxaron bearrik etzan izan. Berialaxe etxe barruan entzun zirean oiñ-otsak eta emakume abots bigun, garbiak didar egin eban:


—«BAIiiiiii, Banoa.....». Eta Juana Marik, Arrut'en emaste zimel, maratzak, aurpegi alai eta irri-barrez, kaleko atea idigi utsan: «Gabon, ba'zatoz»... maiteki-maiteki esanaz...

Eta Arrut'ek begira eukazan adiskide biai «kiñu» eta agur egiñaz, etxean arro sartu zan...

Beste lagun biak, bitartean, Goyenkalerantz aldatza artu ebenian, aikarrerri ezertxu bere esan barik, ixil-mixilka auxe abestuten jozazan

*TXIN-TXIN, TXIN-TXIN, diruaren otsa  
orrek emoten diost, maitia,  
biotzean poza...*

BELU (Gernika)





# Liburu barri bat

Liburu barri bat agertu da Naparroan (1). Emen, pagina onen oiñetan ipiñi doguzan erdal tituluak gora beera, ta Angel Irigaray, Euskaltzaindikoak, jarri deutsan *Introducción* kendu ezketiño, cuskeraz idatzia da. Ondo ornidua dago.

Autore bi dira Irigaray Jaunari liburua egiteko gaia emon deutesnak: Enrike Zubiri Gortari (1867-1943) eta Pablo Fermin Irigaray Goizueta (1869-1949). *Introducción*-ean, beste gauza batzuen artean auxe diño egilleak: «El estilo de ambos escritores es intermedio entre el purista y el excesivamente popular (que linda con la chavacanería)». Norentzako diñoz Irigaray Jaunak berba orreek? ANAITASUNA-koak beiñik bein ez doguz geuretzat artzen. Lenengo esango deutsagu emen *purista* ori ez daki-gula zer dan. Ondo ez beintzat. Bakarrik esango dogu ez dagola deretxurik umeen ezpanetarik BERBA, SAKRAMENTU, ta beste onelako asko Bizkaiko Katezismuan kentzeko, garbiak ez direalakoa, Gipuzkoan gitxi gora beera beste orrenbeste egin dabe. Naparroan ez dakit, ango Katezismoa ez bai dot ikusi.

«Y el excesivamente popular (que linda con la chavacanería)». Beste oneck bere ez dot uste guretzako direanik. Ona emen zegaitik Zubiri Gortari-ren lumeagaz esanda: «Ba... bainan Iruñarrak gipuzkoarra ikasten; nahiz erdia ere ez dugun ulertzen (zonbait aldiz hitzak banazka yakinak izan nikan ere) eskualdun barriak egin lana. Bizpairu aliz irakurtzen dut, baino ezin argirik atara, edo biziki nekez». Bizkaieraz: «Ba... baiña Iruñarrak gipuzkoarra ikasten; naiz ta erdia bere ulertu ez (noizean bein berbak yakiñak izan arren) euskaldun barriak egiñiko lana. Bi edo iru bidar irakurtzen dot, baiña ezin argirik atara, edo guztiz nekez».

Guk ANAITASUNA-n ez genduke gura onelako gauzarik irakurleari pasa dakion, eta orregaitik egiten dogu euskera erreza, garbi garbia ta argi argia. Kalekoa ta mendietakoa; kale ta mendibideetako autsa ta lokatza kendu ta beste barik, eta ori euskerearen maitasunagaitik, euskereari luzaroko gizaldietan bizi erasoteko asmoan.

Gure izkuntza oneri ez deutsagulako kendu gura munduko beste izkuntza guztiak dauken eskubidea, au da, bear direan edo *konveni* direan berba guztiak artzeko libertadea.

Emen guretzako artu dogun kema ideala auxe da: Irakurleak ANAITASUNA-gaz egin daijala erderazko edozein periodikugaz egiten danana, irakurri, ta zelan irakurri, alan entenidu, pentsatu bere artean: *ze ondo dago! ze txarto!* Eta bota Anaitasuna ta urren-go numeroa itxafon, aregaz beste orrenbeste egiteko. Eta ez ibilli Zubiri Gortari gizona legez bizpairu aldiz irakurtzen, baino ezin argirik atara, edo biziki nekez. Burua gogorra baitut naski.

Vid. pag. 104, azkenean.

*Madariaga*

(1) PROSISTAS NAVARROS CONTEMPORANEOS EN LENGUA VASCA. XX-GARREN MENDEKO NAFARROAKO EUSKAL IDAZLARIK. Selección de Narraciones, Crónicas y Artículos de Enrique Zubiri-Gortari y Pablo Fermin Irigaray Goizueta. Ordenados, anotados y prologados por Angel Irigaray de la Academia de la Lengua Vasca. Diputación Foral de Navarra, Institución "PRINCIPE DE VIANA" Editorial Gómez. Pamplona. 1958.

## «ANAITASUNA» DE VIZCAYA

DIRECTOR:

**P. Manuel Berriatua**

**PP. Franciscanos, Bermeo, Vizcaya**

ADMINISTRADOR:

**P. Teófilo Arzallus**

**PP. Franciscanos, Zarauz, Guipúzcoa**

**Irakurri Bizkaiko ANAITASUNA**

**Eskatu Zarautzera**

**Urte beteko suskriizioa: 12 peseta**





# VALENTIN BERRIO-OTXOA DOATSUAREN KARTAK

*Aonezere dira, Valentin doatsuaren euskerazko azkenengo kartak. Beste enparaduetan lez, ondo agiri da bere ama zaarrari deutson maitasun samurra.*

## XVI

*Tunkin-etik, 1859-garren urtian*

Neure amatxo maitia eta gure atxo bizkorra:

Bizi da oindik, ala urten eban mundu onetatik?

Desiua etxat falta, neure amaren letra asarratua ikusteko; urte bat eta erdi da iya, nere amaren notiziarik eztaukadala. Asarratuta dago nigaz, ala aiskide gera?

Gorroto guztiyak alde batera itxi biar dituguz, Mariya Virginiagaz aiskide izateko.

Neure partetik beintzat, maite dot nere amatxo; eta aiperrrik otzak izan nere oraziñuak, Jaungoikoaren aurrian presente eukiten dot gure atxo piña, eta Ama Virginiña Mariyari eskatuten deusat, libratu deiyela peligru guztietatik, ezteiyola itxi pekatuan jausten, eta eriotza on bat emon deiyola, Jaungoikoaren arpegi ederra zeruan ikusteko sekula guztietan. Amen.

Akabatu da sermoia.

Amatxo, alkar zeruan ikusten garianian, erdera berba egin biarko dogu, zergaitik euskeria iya aztu da.

Ni bizkor eta osasunagaz nabil; urte bete eta erdi baiño geiyago da etxe baten naguala; eta palazio eder oniek lastozko teillatua dauko, kakamasazko ormia, kaiñazko postiak, kaiñazko kuartoiak eta kapiriyuak, kaiñazko atiak; eztauko suelo bat baiño, eta au da lurrekua. Palazio andi onetan erregiña berian baiño obeto bizi naiz.

Illundu dau, eta orregaitik asko da gaurko.

Con que ondo bizi, ama. Errosariyo senduari ez itxi eskutik jausten, eta erregutu asko berorren seme bakartxuagaitik.

Gorantziyak aide guztiai eta sazerdote jaun guztiari.

*Fr. Valentin*

## XVII

*Tunkin-etik, 1859-garren urtian*

Nere amatxo maitia:

Lau illabete pasatu dira, neure azkenengo kartia eskribitu nebala. Orain barrero okasiñua presentatu da Macao-ra eskribitzeko, eta nik aprobetxatu nai dot okasiño

au, lau letra berorri eskribitzeko; eztakit karta au berorren eskuetara elduko dan, zergaitik emendik eta Macao-ra bide txarrak dagoz, eta enemigo asko.

Berorren semetxo bakarra osasunagaz bizi da, Jaungoikoari graziyak. Iya Tunkia-eko lurrak ondo artzen nau; orregaitik bizi bedi berori ardura barik; gure Aita zerukuak eta Virgiña Mariyak ondo gordetzen nau, eta gabian eta egunian bere miserikordiazko hegiak nigan ipiñita dagoz; ezpedi ba berorrek gaberik galdu semiaren gaiñian pentsatzen; gauza bat berorrek pensatu biar dau, eta da Jesus maitiari eta Ama

Virgiñiari biotz guztitik erregutu, neure, azkenengo arnaseraiño lagundu deidala bere graziya eta amparuagaz.

Nik ere Jaungoikoari eskatzen deusat berorregaitik, eta egun guztietan meza santuan neure guraso maitiakin akordatzen naiz.

Preparatu gaitian eriotza on baterako, alkar zeruan ikusteko.

Agur, amatxo; eskumunak aide guztiari, batez-bere nere osaba frailiari.

Semiak eskuan mun egiten deuska amari.

*Fr. Valentin Berrio-Otxoa*



## ORTIK EMENDIK

¡CALABAZAS!

ROBERT DONAT

Dantza leku baten gizon txiki, gizon erdi bat, begi okerra ta belarri motx bat, kuadernu bat eta lapiza eskuan, joako neska gazte lirain bateri, ta diñotso belarrira:

- Zure telefonuko numerua?
- Listiñean dago.
- Zure izena?
- Listiñean dago.

Zine aktore ingeles au, ain entzute andikoa il da oraintsu. Aginduta itxi dau bere testamentuan bere funeraletan eleizan kante-tako San Frantziskoren kanta bat magnetofonetik, berak eginikoa, ANAITASUNA-n 1957-ko abenduan agertu zana:

*O, Jauna, egin naizu zure Bakearen zabal-tzaille.*

*Gorrotoaren lekuan ipiñi deidala maitasuna...*

## AITA IMANOL

*Bere nagusien aginduz, Aita Imanol Berriatua, Orritxu onen zuzendaria, lau illabeterako kapellau joan jaku MONTSERRAT transatlantikoan. Ille onen 18-an urten dau Vigo-n, Venezuela, Jamaica ta Inlaterra-ra joan-etorriak egiteko. Danok dakizue, Aita Imanol zelan joan zan igaz Dakar-rera Bermeo-ko arraintzaleakaz. Ille onen asikeran, Vigo-n egon zan Seminaristen Batzarrean, eta konferentzia bi emon zituan itxas apostoladuenaren gaiñean. Orain otoitzak eskatuten deuskuz, bere apostoladu barri au frutu aundikoa izan daiten pasajeru ta tripulanteen artean.*

*Agur, Aita Imanol, eta Jaungoikoak lagundu deizula.*